

Errotze sozialeko (soziolaborala) arrazoiengatik egoitza- eta lan-baimenak lortzearen bidez, migratzaileak gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide integralen proiektuetarako dirulaguntzen deialdian aurreikusitako ebaluazio-batzordea osatzen duten pertsonak
IZENDATZEA

Errotze sozialeko (soziolaborala) arrazoiengatik bizileku- eta lan-baimenak lortzearen bidez migratzaileak gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide integralen proiektuetara bideratutako dirulaguntzen deialdiaren 8. artikulua (2025-04-24ko EHAA), ebazpen-prozedura arautzen duenak, 2.2 apartatuan ezartzen duenez, eskaerak aztertzeko eta ebaluatzeko, ebaluazio-batzorde tekniko bat sortuko da.

Batzorde hori Lanbideko Inklusio Zerbitzuko arduradunak eta zerbitzu bereko teknikariek osatuko dute.

Aipatutako deialdiaren 8. artikulua araberak, ebaluazio-batzorde hori da aurkeztutako eskabideen ebazpen-proposamena egiteko arduraduna.

Izendapen honek aipatzen duen deialdiaren 8. artikuluan aurreikusitako ebaluazio-batzordearen osaera honako hau izango da:

Batzordeburua:

- Uxue Artetxe Uria, Inklusio Zerbitzuko arduraduna.

Idazkaria:

- Ianire Crespo Giga, Inklusio Zerbitzuko teknikaria.

Batzordekide titularrak:

- Laura Bañales Alonso, Inklusio Zerbitzuko koordinatzailea.
- Estíbaliz Aguirre Maruri, Inklusio Zerbitzuko teknikaria.

Ordezko batzordekideak:

- Ander Rodríguez Lejarza, Inklusio Zerbitzuko teknikaria.
- Aintzane Garamendi Torres, Inklusio Zerbitzuko teknikaria.

Ebaluazio-batzordea baliozkotasunez eratuta geratuko da batzordeburua eta idazkaria edo, hala badagokio, haien ordezkariak eta gutxienez batzordekideen erdia bertaratzen direnean.

Batzordeburua ez dagoenean, batzordekide batek zuzenduko du batzordea, lehen zerrendatutako hurrenkeran.

Idazkaria ez dagoenean, batzordekide batek beteko ditu bere funtzioak, lehen zerrendatutako alderantzizko hurrenkeran.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 24a.